







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %2,3 egin zuen gora urrian, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Sektoreka, industrian %3,3 igo zen, gehienbat siderurgian izandako igoeraren ondorioz (%4,5); zerbitzuan 2,7 egin zuen gora zen eta bizitegi alorrean, ordea, %0,8 egin zuen behera.

Industria alorrean urria arteko kontsumo metatuari dagokionez, ia zkoaren azpitik segitzen du; zehazki, %1,9. Zementuan kontsumoak %30,7 egin zuen behera, itsas eraikuntza eta konponketan %12,1 eta kautxuaren eratorrietan %6,4. Siderurgian eta kimika alorrean kontsumoa %0,9 eta %1,5 igo zen, hurrenez hurren.

Gas naturala

Urrian gas naturalaren guztizko kontsumoak %22 egin zuen behera, 2012ko urrian izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %48 jaitsi zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena %12,2.

Urrira artera metatutako kontsumoak %6,7 egin du behera, 2012ko epealdi berarekin erkatuta (-%17,7 CCTT-n eta -%3 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

Irailean, garraioan erregaien kontsumoa %3,4 igo zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %3,6 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %4,3 egin zuen gora.

Hirugarren hiru hileko arteko kontsumo metatua %1,9 igo da, ia zkoarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %8 egin zuen behera eta A gasolioenak, aldiz, %3,3 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Urrian, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 90,7 milioi kupel izan zen (2012ko urriaren aldean, %0,3 igo zen). Hartara, urtebetean, Europar Batasunean %2 egin zuen behera kontsumoak, 13,8 Mbpd kantitatera iritsiz; AEBetan %0,1 jaitsi zen, eta 18,7 Mbpd kopuruan kokatu zen. Txinan, ordea, %1 egin zuen gora, eta 10,9 Mbpd kontsumitzera heldu zen.

Munduan, azken sei hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,1 igo da, oro har, eta %5,9 Txinan; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %2,5 eta %0,3 jaitsi da, hurrenez hurren.

Energiaren kontsumoa Espainian







Espainian gas naturalaren kontsumoa %10,6 jaitsi zen urrian, 2012ko hil horretan izandakoaren aldean; eta urtearen hasieratik metatutakoak %9,4 egin du behera.

Elektrizitatearen kontsumoak, berriz, gora egin zuen urrian (%0,9), 2012ko urrian izandakoarekin konparatuta, eta urteari dagokion metatua %2,7 jaitsi da urriarte arte.

Errepideetan erregaien kontsumoak %4,2 egin zuen behera abuztuan, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %5,6 jaitsi zen, eta %3,9 gasolioen kasuan. Abuztu arteko kontsumo metatua %5,5 egin du behera (%7 gasolinena eta %5,1 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %1,2 egin zuen gora abuztuan; hala ere, urteari dagokion metatua %4,7 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta ElAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 109,5 \$ (80,3 €) izan zen irailean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %2,7 egin zuen behera (%4,5 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %5,4 igo zen ekainean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 25,4 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %7,4 egin zuen behera irailean, iazko hil berean izandakoarekin konparatuta, eta 26,4 €/MWh iritsi zen.

Ikatzaren prezioa

Ekainean, ikatzaren prezioa 74 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %19,1 jaitsi da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %12,8 egin zuen gora urrian, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 51,5 €/MWh iritsi zen. CESUR oinarritzko prezioa urteko azken hiruhilekoan 47,6 €/MWh izan zen, %3,4 jaitsiz, 2012ko epealdi horretan izandakoarekin erkatuta.

Erregaiaren prezioa

EAEn, irailean, gasolioaren prezioa 1,35 €/l izan zen eta gasolinarena 1,41 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %3,4 eta %3,8 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,2 €/t izan zen ekainean, eta 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %49,2 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.